

ALZOLA GEREDIAGA, Nikolas. *Euskaraz, Irunen barrena*. Luma Liburuak.
2. Irun. 1994

Irungo "Luma Liburuak" deitzenaren 2. zenbakiak izenburutzat *Euskaraz, Irunen barrena* daraman liburua argitaratu du, baina Irun ezezik Bidasoan zehar egiten den euskara mintzatua biltzen du anekdotaz, bertsoz, kondairaz eta abar, Nikolas Alzola Gerediaga zenak herri-gandik ahoz jasoak eta lehena-go, 1959-1961 urteetan *El Bidasoa* aldizkarian "Literatura oral euskérica de la comarca bidasotarra" sailean emandakoetatik hautatuak, eta anitz bada Hondarribian bildutakotik.

Liburu entretenigarria benetan. Hondarribiarren kontakizunik ez da falta, bertan herria mintzo den bezala eta, esan beharrik ez da, euskaraz eskolan irakurtzen ikasteko aukerarik izan ez zuten hondarribiar euskaldun jatorrerirakurketan trebatzeko aukera ona eskaintzen diola, era berean bertako herri literatura ezagutuz.

Zenbakiturik datoz eta hara hemen 107.a (70. orrialdean), Jabier Intxausti Aizpiolea portugarrak 1959.ean kontatua, hitzez hitz:

"Pernandok esan zion lagun bateri:

— Eztakizula ze egiten duen len-dabiziko bei batek eguzkiya aateetzen denian?

Eta bestiak esantzuen:

— Eztakit zer egiten dun.

— Itzala"

Kontalari ber-berak, 123.ean (76. or.) beste honako hau dakar:

"Esantzion lagun batek bestiari:

— Nora faki zara?

— Illia moztera.

Eta Bestiak esantzion:

— Eztutu ta illerik. Nola illia moztu b'ar duzu?

Eta bestiak esantzion:

— Baña ez tut pagatu b'ar".

Kontalari trebea Jabier, 127. ateraldiak erakusten digunez:

"Arratse batian esantzion atta batek bere semeari:

— Zer da urrutiyago? Erroma ala illaragia?

Eta semeak esantzun:

— Erroma

Baño zertikan?

Eta esantzion semiak?

— Zertikan illargiya ikusten dut Erroma ez".

Liburuaren barrena Hondarribian bildutako bertsoak ere aurkituko ditugu. Adibidez, Klaudio Otaegi Irunen bizi zen hondarribiarri jasoa. Baina, 247.a (140. or.) datorren bertsoa, J.J. Marfull Arretxeri jasoa, zortziko txikian, nere ustez lehen puntuan inprimategiko hutsen bat duela

esango nuke, zeren *-tatu* hori ezinezko da *-tuta* puntuarekin errimatzea potirik gabe bertsoa osatzeko; hargatik uste dut: *ostuta / moztuta* behar duela izan puntu jatortzat. Beraz, hara hor nere ustezko era egokian:

Amonak ekarri du
txerriya ostuta
zintzillikan jarri du
isatsa moztuta

Baina polita da beste honako kontakizun hau ere, 1960. urtean C.S.O.k kontatua (arestian aipatua den Karmen Sagartzazu Otaegi, noski). 260. zenbakia dararama 145. orrialdean:

“Oartzungo andre bat ikazkillia etortzentzen Ondarribira mando aundi batekiñ.

Eta pasatzentzen kale Nagu-sittik aurrera plazarañon. Plaza ixkiñian sartzen zen Anbroxioren kafian. Eta galdetzentzuen baso aundi bat ardo eta ogi koxkor bat.

Sartutzentzuen ogiya orduan barrenian eta jatentzuen ardo ttantturik gabe geldittu arte.

Orduan salero aundiyaikiñ esatentzion Anbroxion morroyari:

— Ekatzu, gaxo, beste baso bat ardo, zertik ogiyak dena eran nau.”

Izan ere, biltzaile paregabea zen Nikolas Altzola, pazientziaz betea. Euskaraz naiz gazteleraz, euskal gaiei buruz lan asko egin zuen gizona Nikolas inguru ho-

netako askorantzat Anai Balentin Berriotxo zena. Adiskide mina nuen eta elkarren artean harreman estuak izan genituen. Irundik Durangora edo Bilbora trenez joaten zenean, maizenik, Eibarren gelditzen zen, gure etxean atsedendidi eta hitzaspertu bat egiteko. Bere lehendabiziko *Atalak* (1967) ipuin liburuaren hitzaurre hiru-koitzean partaide nintzen E. Erkiaga eta L. Akesolorekin batean.

Euskaraz, Irunen barrena delako liburu honen solapetan Nikolas Altzola egilearen lanen berriak irakurtzean nornahi ohar-tuko da garai zail haietan zenbat lan egin zuen gizon harek. Ez ditut aipatuko bere lanak argitara eman zituzten aldizkari guziak ez eta ere erabili zituen izenordeak, asko baitira. Baina solapa hortan bere liburuak aipatzean ikusten dut bi falta direla. Eta horien berri eman beharrean aurkitzen naiz lagun onaren oroitzapenez; ipui liburuetan ohi zuen bezala Bitaño izenpean Gero argitaletxearen Kimu sailean eman bai zituen *Ipuiak* (1978) eta *Ipuiak-II* (1980). Gainera, ikus hilondokotzat idatzi nuen artikulua *Egan-en* (1-6. zenb., 1982, 5-12. orrialdeetan): “Nikolas Altzola Gerediaga zena-ren oroitzapenez”.

Bere etengabeko lanetan, Nikolasek, sorterri zuen Izurtza eta Durangaldeaz gainera, Irunen Lasallear egonaldia probe-txugarri izan zitzaion Bidasoa

ibar inguruko folklore eta gizonen berri asko bildu eta idazteko. Horren lekuko bat besterik ez da *Cien autores vascos* (1966), non elkartu zituen nortasun handiko gizonen artean apalenak eta guti ezagunak. Adibidetzat jarri neza-ke, bere lan horri esker, "Sartarka"ren anaia Dionisio Sagar-*tzazu* (1898-1958), badakigu Fraisoro Eskolan ikasketak egina zela eta Diputazioaren beka In-*glaterrako Gernesey-n* ere ikas-*ketetan* egona zela. Lehen aldiko Zeruko Argia-n "Nekazaritza Gaiak" idazten zuela euskaraz.

Baina, liburu haren 136. orrial-*dean* ematen zituen berrien ar-*tean* irakur daiteke ohar laburre-*tan* Kayo Lasa hondarribiarren aipamena, nork *herri-kontuak* agertzen zituen *Euskal-Esnalea* aldizkarian. Inor arduratzen ote da horien lanak biltzen?

Beste gai bat litzake bida-*soa* ibarrean astisteri buruz euskal aldizkarietan Nikolasek idatziak, edo L.L. Bonaparte printzea eta haren lankideez *El Bidasoa* aldizkari berean idatzi zituenak.

Juan San Martin